

Mari Euskal Mitologian

Mitoak ametsetatik sortutako kontakizunak dira; ez dira egiak, baina amestu edota kontaktzen ditugun artean *egiak* bilakatzen dira. Ingurunea eta haren legeak ulertu nahiak eramaten ditu giza-kolektiboak munduaren sorrera eta gizakiaren garapenaren inguruko hipotesiak sortu eta bideratzera. Giza-taldeen susmoak agertzen dira mitoetan, amets itxurako istorioetan bilduta, ametsak duten materia sinbolikoa partekatzen dutelarik. Gizakiaren ezinak, antsiak eta jakin-minak formulatzen dira mitoetan, fenomeno fisiko-naturalak, izaki mitikoak eta gizakiak nahastuz eta ekintza berdinak partekatuz. Jainkoek eta bestelako pertsonaiek elkarbanatzen dute, neurri batean bederen, gizakien natura, haiek dira, izan ere, gizakia eta naturaren arteko bitartekariak.

Horrela ulertzen zuten euskaldun zaharrek mundua

Lurra eremu zabal bat zela pentsatzen zuten euskaldunek, bertan zeuden itsasoak eta ibaiak, mendiak eta haranak. Baina lur-azala ez zegoen inoiz geldia; lur multzo batzuk altxatzen ziren artean, besteak jaisten ziren, aldi berean, mendiak eta haranak sortzen zirelarik, zenbaitetan begien bistan suertatzen ziren horrelakoak.

Lurraren barnean beste mundu bat zegoen azalekoaren ispilu gisa; lur-azpiko mundu hau esnezko ibaiak zeharkatzen zuten, urrez beteta zegoen gainera haren azala. Horietaz gozatzeko, sarrera ugari zeuden lur-azalean, baina zulo horiek zaindari beldurgarriak zituzten: sugetzarrak, herensugeak eta horrelako hainbat izaki ikaragarriak galarazten zuten lurpeko eremuaren sarrera.

Lurraren abalak

Eguzkiak lurra ongarritu egiten zuen argitasuna eta beroa banatzearekin batera; gainera, izpiritu txarrak uxatzen zituen. Eguzkiaren gainbeheran esaten zuten:

“Eguzki amandrea badoa bere amarengana”.

Ilargiak gaua zaintzen zuen, izpirituarena zen gaua eta bizirik zeudenen eta hildakoen arteko harremanak ilargiak bideratzen zituen; gainera, bizitzaren aroak ordenatzen zituen.

*“Ilargi amandrea, zer dakarzu berri?
Zeruan berri onak orain eta beti”.*

Mari

Euskal Mitologiako jainkosa nagusia da. Harekiko sinesmena nahikoa hedatuta zegoen euskal gizartean, ikertzaileek jaso dituzten testigantzek hala diote. Egoitza desberdinetan kokatzen dute hauek jainkosa, batez ere, kobazuloetan, baina haietan ere boladak pasatzen zituen eta egoitza batetik bestera, urte sasoiakin batera aldatzen zen zerua modu harrigarrian zeharkatuz. Haren egonaldietan klima gertaera desberdinak gauzatzen ziren: hala nola, Aketegira lehortea ekartzen zuen; Txindokira elurteak eta ondoren uzta onak; Anbotora ekaitzak.

Hala ere, egoitza horietako batzuetan zegoenean, gauza bereziak gertatzen zirela kontatzen zuten. Batzuen esanetan, haren etxe bakoitzean zazpi urteko boladak pasatzen zituen. Egonaldi bakoitzean, lurraldeko biztanleek eragina nabaritzen zuten eguneroko kontuetan. Ziotenez, Marik onurak banatzen zituen beregan sinesten zutenen artean: bidean galtzen zirenak bideratzen zituen; gainera haien ganaduak zaintzen zituen. Haien kobazuloetatik zenbaitetan lainoa ateratzen zen, Marik ogia egiten zuen bakoitzean; euririk ez zuen arituko laino horrek zirauen bitartean.

Jakintsua zen Mari, gizakiari kontu desberdinetan aritzeko aholkuak eskaintzen dizkio, nahiz xehetasun teknikoak: nola nekazaritzan hala burdinoletan ere. Hitzekoa da Mari, zuhurkeria zigortzen du, modu berean zigortuko du gizaki batek duen edozer ukatzen duenean; kendu egingo dio gauza hori gizakiari.

Itxura ugarietan deskribatzen dute ikusi dutenek: erretzen ari den zuhaitzaren piuran, edota lau zaldiz tiratutako gurdian zerua zeharkatuz. Gehienetan emakume ederraren itxuran, urrez jantzita; baina bateren batek ere ikusi izan du goruetan egiten edota, laminen antzera, urrezko ileak etengabe orrazten, ispilu aurrean.

Guztiek gain, beste itxura batzuetan ere agertzen zen Mari; zenbaitetan, belearen forman edota zaldiarenean. Hala ere, edozer zelarik ere, hodeia, suzko bola bat, tximista edo suzko igitaiaren antzeko zer edo zer ikusita, Mari zela sinetsiko zuten.

Jainkosaren etxeetan dena zen urrezkoa, baina bertara ezin zen sartu haren gonbidapenik gabe. Sartzen zirenak aurrez aurre begiratu behar zioten Mariri eta irteeran ezin zitzaion, inola ere, bizkarra erakutsi; irteerako pausoak, beraz, atzeraka eman behar izaten zituzten bisitariak. Oso eskuzabala zen Mari haren bisitariekin, erregalatzen zituen ikatz puskak urre bilakatuko ziren haren etxetik irteterakoan. Baina baimenik gabe zer edo zer hartzen zuenak harriturik ikusiko zuen objektu hura ikatz nola bihurtzen zen.

Izen ugari jaso zituen Euskal Herrian barrena: Mari, Anbotoko sorgina; Txindokiko Mari; damea, sorgina... haren ibilbideetan, gainera, bikote desberdinekin partekatu zituen bizia, amodioa eta seme-alabak.

Sugoi, Sugaar, Maju... suge formako jeinua da bere bikote ohikoa. Harekin zeruan elkartzen da aldian behin; elkartzen direnean, kazkabarra sortzen da. Bi seme dituzte elkarrekin; Odei (Ekaitz hodeia) eta Atarrabi (Euritako hodeia).

Zenbaitetan ere gizakiekin elkartzen da: hala kontatzen dute don Diego López de Harorekin ezkondu eta, besteak beste, Iñigo Arizta sortu zutela, Bizkaiko leinuaren sortzailea.

Oharra

Iturri ugari erabili dira idatzi honetan; besteak beste, Barandiaran eta Caro Baroja. Nahi izanez gero bibliografia gehiago aurkituko duzue “Sasi Guztien Gaintik” liburu-diskoan.